

DONOSTIA / Umeentzako proposamenekin gida berria argitaratu du Udalak

Udarako ' liburu harrapatzaileak ' biltzen dituen liburuxka banatu du kultur etxeetan

Donostia. Gaztetxoak liburuengana gerturatu nahian, haiek bereziki uda garaian irakurtzeko gomendioak jasotzen dituen liburuxka argitaratu berri du Donostiako Udalak. Liburu Harrapa-tzaileak izenburuarekin, 30 bat proposamen jasotzen ditu prestatu duten gidak.

Argitalpen berriak adinka sailkatzen ditu gomendatzen dituen liburuak. Honela, oraindik irakurtzen ikasten ari direnentzako ere baditu proposamen batzuk: hiru urtetik aurrerakoentzat El Rey Cocodrilo edo Munstro bat ohe azpian ipuinak aurkezten ditu. Sei urtetik gorakoentzat, berriz, liburutegietako arduradunek Egizu lo: lotarako ipuinak edo Paula en Nueva York aipatzen dituzte, eta bederatzi urte baino gehiago dituztenei La hija del vampiro eta Printze txiki-txikiaren itzulera irakurtzeko esaten diete.

Azken taldea hamabi urte baino zaharragoek osatzen dute eta haiei gomendatzen dizkieten liburuetan abentura kutsua are eta nabarmenagoa da. Manu López Gaseniren Gogoa Lege eta Blue BallietenEl enigma Vermeer irakurtzeko proposatzen diete liburutegietara hurbilduko direnei, besteak beste. Laura Gallegoren Mandrágora eta Karlos Linazasorenen Lau ipuin matteomigliar ere aipatzen dituzte.

Bestalde, Liburu Bereziak deitutako atala ere gaineratu dute liburuxkan, adin guztietakoei zuzendutako izenburuekin. Bertan Toti Martínez de Lezea ezagunaren Sorginak, Quentin Blakeen Cuéntame un cuadro, Norman Messengeren Imagina eta Patxi Zubizarretaren Urrezko giltza hautatu dituzte.

"Badira liburu batzuk, elefanteen gisakoak, beren hitzen indarrarekin harrapatzen zaituztenak". Hitz hauekin ematen diote hasiera liburuxkari eta jakinminak bultzatuta, gaztetxoek gida irakurriko dutelako ustea daukate Donostia Kulturak.

Horretarako, eta liburuxka erakargarriagoa izan dadin beraientzat, aurreko urteotan ez bezala liburuen portadak ere jarri dituzte gidan. Koloretan argitaratu dute eta euskara eta gaztelera tarteka-tzen dituzte proposamen bakoitzaren aldamenean istorioaren azalpen labur bat egiten dutenean. Kultur etxe guztietan ez ezik, Donostiako ikastetxe batzuetan ere banatu zituzten liburuxkak pasa den ikasturtean. >a.z.